



# EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 6 zk.

## Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



**Dorleta Uranga.** ULMA Taldea

"Zorionekoa sentitzen naiz nire gurasoek euskara erakutsi zidatelako. Harro nago eta nire ingurukoekin partekatu nahi dudalako Euskaraldian izena eman dut. Ekimen interesgarri honekin hitz egiteko indarra hartzen dute euskaraz hitz egiteko ziurtasuna ez dutenek, eta, aldi berean, betidanik egiten dugunok elkarrizketa euskaraz hasteko konpromisoa dugunez, euskaraz egiten ez zutenen berri jasotzen dugu. Hori benetan interesgarria da".



**David Calvo.** ULMA Handling Systems

"Nire konpromisoa belarriprest izatea izan da. Nire ingurua ez da euskalduna, eta niretzako ez da erraza euskaraz hastea. Hala ere, euskara badakit, eta erraztu nahi diot gura duenari, nirekin euskaraz hitz egitera".

## Eguneko datua

Euskaraldiarekin bat egin duten **10 pertsonatik 6 emakumeak** dira.



ULMA Taldean, berriz, **10 pertsonatik 3** dira emakumeak.

## Pandoraren kutxa

**Aitziber Garmendia:**

"Euskaldun berri, herriari zor diozun errespetua erakusteagatik miresten zaitut"



emun

8. eguna